



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Ekonomia Sustapeneko,
Landa Ingurune eta
Lurralde Oreekako Departamentua

JARRAIPENA

ESKAERAREN TXOSTENA OSATZEKO GIDA



OHARRAK:

Jarraian eskabidearen balorazio egokia egin ahal izateko eskabidearen txostenak jorratu beharko liratekeen arloak azaltzen dira.

Aplikatioan eskaera txostenaren formularioa betetzea derrigorrezkoa da. Horretaz gain, dokumentu osagarriak erantsi daitezke aplikatibora.



Helburua

HAUTAGARRITASUNA

- Proiektuaren kokapena “Gipuzkoako enpresa ehunaren lehiakortasuna indartzea, jasangarritasuna eta lankidetzaz sustatzeko programa” arautzen duen 2018ko maiatzaren 08an Diputatuen Kontseiluak onartutako erabakiaren III. Eranskineko 3. oinarrian aurreikusitako jarduera hautagarrien barruan

ZERTARAKO

- Proiektuaren testuingurua eta justifikazioa
- Aldatu/hobetu nahi den egoeraren deskribapena/diagnostikoa
- Helburua
- Aplikazio eremua
- Lortu nahi diren emaitzak/hobekuntzak
- Orain artean garatutako jarduerekin alderatuz proiektuak duen balio erantsia
- Enpresaren edo enpresen jasangarritasunean eta lehiakortasunean eta Gipuzkoako enpresa ehunean proiektuak duen eragina
- Enpresarengan edo enpresengan eta langileengan (populazio ikuspegitik) izango duen eragina



Garatuko den proiektua

ZER - NOLA

- Garatuko den proiektuaren eta ekintzen deskribapena
- Proiektuaren dimentsioa eta hedadura
- Erabiliko den metodologia
- Aurreikusitako egutegia
- Entregagaiak

NORK

- Proiektuan parte hartuko duten erakundearen deskribapena,
- Departamentuarekin harremanak izateko taldea izendatzea
- Aurreikusitako lan taldea: pertsonak (gaitasunen profila barne) eta baliabideak.

Garatuko den proiektua txertatu/barneratuta/landu eduki beharko lituzke, besteak beste:

- Garatuko den proiektuaren jasagarritasuna eta bideragarritasuna bermatuko duten mekanismoen txertaketa proiektuan
- Proiektuak duen erlazio maila kalitatezko enpleguarekin
- Izaera Eraldatzailea: esperientziaz jomuga izatea, proiektuaren elementu eraldatzaileak, eraldaketa maila.
- Ikasitakoa eta praktika onak indarrean jartzea, aprobetxamendua eta aurreko esperientzietako emaitzak kontuan izatea (entitatearen nahiz kanpokoak)
- Elkarlanaren eta prozesu parte-hartzaileen antolaketa: Entitate parte-hartzaileek hartutako konpromisoak, barruko nahiz kanpoko elkarlana, arloen artekoa eta garatuko diren prozesu parte-hartzaileak edo parte hartzeko ereduak, sektore publikoa eta pribatuaren parte hartzea, informazio eta kontsulta prozesua, lankidetzan aritzeko bitartekoak, parte hartzearen justifikazioa, beste proiektu batzuetako esperientzia....
- Genero ikuspegiaren txertaketa proiektuaren diseinu eta garapenean
- Euskara sustatzeko ekintzak: Zein arau eta prozedura euskarri ditu garatuta entitateak (planak, eta abar), zein esperientzia, entitatearen jardueran euskara ezagutzeari eta erabiltzeari dagokienez? Proiektua garatzean, zein izango da euskararen erabilerari emango zaion tratamendua? Zein neurritan egingo dio ekarpena proiektuak euskara ezagutzeari eta erabiltzeari dagokionez?
- Bi hizkuntza ofizialen tratamendua
- Aurreikusitako ebaluazio, jarraipen eta neurketa sistema eta emaitzen aplikagarritasuna
- Garatuko den jarduketaren jasagarritasuna



Barne pertsonala

BARNE PERTSONALA

- Proiektuan parte hartzen duten enpresaren pertsonak erantsi aplikatibora

KANPO PERTSONALA

- Proiektuan parte hartzen duten entitateko pertsonak erantsi aplikatibora

Garatuko diren zereginak eta azpizereginak

NOLA eta NOIZ

- Zereginen atalak eta azpiatalak azaldu:
 - Helburuak
 - Deskribapena
 - Parte hartzaileak
 - Entregagaiak
- Zereginen egutegia:
 - Noiz hasi eta noiz amaitu
 - Zenbat orduko lana



Aurreikusten diren zailtasunak

ZAILTASUNAK

- Diagnostikoa
- Diseinua
- Plangintza eta antolaketa
- Gauzapena
- Koordinazioa
- Bestelakoak